

IKASLEEN ETA ADINEKOEN ARTEKO ELKARBIZITZAKO PROGRAMA

ZER DA?

Ikasle baten eta adineko baten arteko elkarbizitzako programa da, ikasleak lagun egiten dio adinekoari eguneroko jarduera batzuetan, ostatuaren eta dirulaguntza baten truke.

BALDINTZAK:

Ikaslea:

- Dagokion ikasturte akademikorako **matrikulaturik** egotea.
- **adinez nagusi** izatea.
- ez izatea gaixotasun infekto-kutsakorrik, ez eta bizikidetza normala aldatu dezakeen nahasterik ere.

Adinekoa:

- **Gipuzkoako** edozein udalerritan eroldaturik egotea.
- **Bakarrik** bizitzea edo beste adineko batekin.
- Ez izatea gaixotasun infekto-kutsakorrik, ez eta ohiko bizikidetza normala aldatu dezakeen nahasterik ere.
- Bere gauzak egiteko **gai** izatea,
- Edozein tituluren pean ohiko **etxebizitza bat edukitzea** (kanpoan geratzen da prekarioa), etxebizitzaren arrisku anitzeko aseguru batez etxebizitza aseguratzeko edo hori egoteko konpromisoa hartzea,
- Ikaslearekin **odol ahaidetasunik ez** izatea laugarren mailara arte, ez eta ezkontza ahaidetasunik ere bigarren mailara arte.



LAGUNTZA MOTA:

Bi prestazio mota daude:

- **Lagun egitearen prestazioak:** Ikasleak, adinekoarekin etxebizitzan gaur pasatzeaz gain, lagunduko dio eguneroko jardura batzuetan (lagun egitea medikuenera, janaria erostea, egunean ordu bat inguru).
- **Laguntza pertsonaleko prestazioak:** Aurreko prestazio berberak izango dira, baina laguntza handiagoa emango zaio adinekoari, behar handiagoa duelako, eta laguntza hori izango da egunean ordu batetik gorakoa.

Prestazio ekonomikoen zenbatekoa:

Zenbatekoa herriaren arabera aldatzen da.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Lekuan lekuko Gizarte Ongizate Sailak tramitatzen ditu eskaerak. Dena den, orokorrean, hauek beharko dituzu:

Ikasleak:

- Ikaslearen eskabide inprimakia (gizarte langileak emanda)
- NAREN fotokopia
- Matrikula ofizialeko ziurtagiriaren eta/edo ikasle izaeraren egiaztagiriaren fotokopia.





Adinekoak:

- Ikaslearen eskabide inprimakia
- Oraingo osasun egoerari buruzko medikuaren txostenaren kopia
Bizileku agiria, antzinatasun egunaz, eta bizikidetza agiria
- SAKONTZEN balorazio eskabidea (gizarte langileak emandakoa)
- Guztizko diru-sarrerak egiaztatzen dituen edozein agiri, hala nola, pentsioak, nominak eta Abar.
- Etxebizitzaren arrisku anitzeko aseguruaren ordezkagiria

INFORMAZIO ZABALAGOA:

Arrasate. BAZ. 943252000

Donostia. Hirugarren adinakoen Atala
Urdaneta, 13. 20006 Donostia

Tel. 943481430

www.donostia.org

LEGEAK ETA ARAUAK: Uztailaren 18ko 73/2000 Foru Dekretua, ikasleen eta adinekoen arteko elkarbizitzako programa arautzekoa (GAO zk. 142, 2000/07/27koa).

